

EUSKARA PROBA A1

ULERMENA

1. Ariketa: Pertsona batzuek egunkarian iragarki batzuk idatzi dituzte lan egin nahi dutelako.
Beste pertsona batzuk langile bat bilatzen ari dira etxean, tabernan... laguntzeko.

Zein lan interesatuko zaio pertsona bakoitzari?

Interesatuak	Lan iragarkia
Dublingoa naiz. Unibertsitate Publikoko ikaslea naiz eta arratsaldeko ordutegia dut. Goizean lan egin nahi dut etxeko errenta ordaintzeko.	C
Seme-alaba txikiak ditut. Goizero ikastolara eraman behar ditut, oraindik ezin direlako bakarrik joan. Lan bat bilatzen ari naiz, ikastolan dauden bitartean egiteko.	A
Lesakatik Iruñera etorri naiz, unibertsitatean ikastera. Goizean pedagogia ikasten ari naiz. Arratsaldeak libreak ditut eta lan egin nahi dut. 3 urteko esperientzia dut Lesakako haur-eskolan. Umeak izugarri gustatzen zaizkit.	B
3 urtez lan egin dut kamioi bat gidatzen, eta bidaia luzeak egiten. Orain langabezian nago, enpresa itxi dutelako. Lan egin nahi dut, ez dut ikasketarik, baina 1. mailako gida baimena dut.	F
Unibertsitateko ikaslea naiz. Euskal filologia ikasten ari naiz, hizkuntzak asko gustatzen zaizkidalako. Bidaia asko egin ditut eta frantses, ingeles eta aleman pixka bat hitz egiten dut. Pasa den udako oporretan taberna batean lan egin nahi nuen. Aurten ere lan egin nahi dut.	D
18 urteko mutil gaztea naiz. Ez dut gehiago ikasi nahi. Lan egin nahi dut gurasoen etxetik ateratzeko. Berdin zait ordutegia. Adinekoak eta haurrak ez zaizkit gustatzen, baina moda eta estetika asko gustatzen zaizkit.	E

Lan iragarkiak:

- a- Pertsona bat behar dugu etxeko lanak egiteko. Egunero goizeko 10:00etatik-12:00etara. Ongi ordainduko dugu. Interesetzen baldin bazaizu, deitu telefono honetara: 948-223467.
- b- Pertsona bat behar dugu 6 eta 9 urteko seme-alabak zaintzeko eta ikastolako etxeko lanak elkarrekin egiteko. Beharrezkoa da euskara jakitea, gure seme-alabak euskaldunak direlako. Hau da ordutegia: astelehenetan eta asteazkenetan, arratsaldeko 18:00etatik- 20:00etara. Interesatuta baldin bazaude, idatzi helbide honetara: anaetasanti@gmail.com
- c- Speak akademian, Estafeta kalean, 3an, pertsona bat behar dugu ingeles klaseak emateko. Ordutegia: Egunero goizeko 8:00etatik-11:00etara. Interesetzen baldin bazaizu, etorri gure akademiara hitz egitera.
- d- Txoko tabernan zerbitzaria behar dugu sanferminetan lan egiteko. Beharrezkoa da esperientzia izatea. Hizkuntzak jakitea baloratuko da. Interesatuak etorri tabernara goizeko 9:00etatik-10:00etara.
- e- Beltzunegi arropa dendan 18-25 urte bitarteko saltzailea behar dugu. Txandakako ordutegia dugu: aste batean goizean eta hurrengoan arratsaldean. Interesetzen baldin bazaizu, etorri gurekin hitz egitera.
- f- Gure enpresan banatzaile bat behar dugu, Nafarroa osoan tabernaz taberna garagardoak banatzeko. Esperientzia baloratuko da. Hau da gure telefonoa: 66232893.

2. Ariketa: Irakurri testua eta aukeratu erantzun zuzena.

Kaixo, Patxi:

Zer moduz zaude? Ez didazu aspaldian ezer kontatu. Lanpetuta zabilta?

Zer egingen duzu asteburuan? Nik ideia bat emanen dizut. Beran, larunbatean, Euskararen Eguna ospatuko dugu: antzerkia, euskal dantzak, bazkaria eta kalejira. Joan den urtean, Lesakan egin genuen festa hori. Gogoratzen duzu zein ongi pasatu genuen?

Aurten gure elkartean egingen dugu bazkaria. Horrela, eguraldi txarra egiten baldin badu, ez dugu problemarik izanen. Bazkariaren lema "Hitz egin euskaraz lotsarik gabe" da. Horregatik, bazkaldu bitartean saiatuko gara euskaraz hitz egiten. Murchanteko ardoa izanen dugu laguntzeko.

Bazkaria autogestionatua izanen da, horrela nahiko merkea aterako zaigu eta ikasleak eta langabetuak ere joanen dira. Postrea eta kafea hartu bitartean bertsolariak parte hartuko dute.

Bazkaldu ondoren kalejira egingen dugu eta tabernaz taberna ibiliko gara berandu arte.

Badakit ez zaizula gidatzea gustatzen, baina ez kezkatu autobusez etortzen ahal zara eta. Oso ordutegi onak dituzu: Baztanesa 14:00etan hartzen baduzu Elizondon, 14:30ean egonen zara hemen eta ordu onean iritsiko zara bazkaltzera. Gauean, 23:00etan izanen duzu autobusa Elizondora itzultzeko. Beno, parranda luzatu nahi baldin baduzu, nire etxera etortzen ahal zara lo egitera eta igandean itzuliko zara.

Animatzen bazara, osteguna baino lehen abisatu behar diozu kultura teknikariari (IkerIrazoki@gmail.com). Etortzen bazara, parranda ederra egingen dugu eta, gainera, euskaraz hitz egingen dugu egun osoan. Zer gehiago nahi duzu?

Musu bat

Ane

Zer da egia? Eta gezurra?

- 1- Anek eta Patxi egunero hitz egiten dute telefonoz.
- 2- Anek Patxiri idatzi dio plan bat proposatzeko.

- 3- Anek eta Patxik ez dute inoiz Euskararen Eguna ospatu.
- 4- Bazkaldu bitartean ardoa edanen dute.
- 5- Ardoa edaten baldin badute, gehiago hitz egingen dute euskaraz.
- 6- Bazkaria etxean prestatuko dute.
- 7- Ez dute postrerik hartuko, eta horrela merkeagoa aterako da bazkaria.
- 8- Bazkaldu eta gero parranda egingen dute.
- 9- Patxik Elizondotik Berara joan behar du.
- 10-Patxi autobusez joaten baldin bada, berandu iritsiko da bazkaltzera.
- 11-Aneren etxean ez dago tokirik lo egiteko.
- 12-Izena eman behar duzu festan parte hartzeko.

Erantzunak:

1	2	3	4	5
G	E	G	E	E
6	7	8	9	10
E	G	E	E	G
11	12			
G	E			

IDAZMENA

1. ariketa. Mezua idatzi. 60 hitz gutxienez

Zure lagunak, Mirenek, mezu hau idatzi dizu:

Kaixo, Edurne:

Zer moduz zaude? Anak esan dit jubilatuta zarela. Zorionak! Zer egiten duzu orain? Asko aldatu da zure bizimodua?

Datorren larunbatean Iruñera joanen naiz. Non elkartuko gara? Zer egingen dugu elkarrekin? Laster arte eta ongi izan!

Miren

Zuk erantzuna idatziko duzu:

- Agurtu.
- Kontatu: Zer egiten duzu egunero?
- Larunbateko plana kontatu: Zer egingen duzue elkarrekin?
- Agurtu.

2. Ariketa: Idatzi mezua. 40 hitz gutxienez.

Mezu hau jaso duzu:

Kaixo, Aitor: Zer moduz bizi zara? Datorren hilabeteen ezkontza bat izanen dut eta arropa erosi behar dut. Larunbatean, arratsaldean, dendaz denda ibiliko naiz. Etorri nahi duzu nirekin? Ongi izan!

Karmele

Erantzuna idatziko duzu:

- Agurtu.
- Zu **EZ** zara Karmelerekin joanen. Zergatik?
- Zer egingen duzu larunbatean? Kontatu zure plana.
- Agurtu.

AHOZKOA

1. Zure aurkezpena eginen duzu:

- Zein da zure izena? Eta zure abizenak?
- Nongoa zara?
- Non bizi zara?
- Zenbat urte dituzu?
- Baduzu seme-alabarik?
- Zein da zure lanbidea?
- Non egiten duzu lan?

2. Zure bizimodua, zaletasunak...

Egunerokoak

- Non bizi zara?
- Non dago zure lantokia?
- Nola joaten zara lanera?
- Zenbat denbora behar duzu etxetik lanera joateko?
- Non egiten dituzu erosketak?
- Zuk prestatzen duzu janaria zure etxean?
- Nola banatzen dituzue etxeko lanak?

Zaletasunak, oporrak...

- Zer egiten duzu denbora librean?
- Kirolak egiten duzu?
- Gustatzen zaizu irakurtzea?
- Eta dantzatzea?
- Zer egiten duzu oporretan?
- Zer egingo duzu gaur arratsaldean?
- Eta datorren asteburuan?